

PRENTSA.OHARRA

Nafarroa Arenak bere atepak irekitzen ditu

Irailaren 27an eta 28an aurretik izena eman duten herritarrentzako Nafarroa Arenako bisita gidatuak egingo dira.

Iruñea, 2018ko irailaren 19a: Irailaren 27an eta 28an 10:00etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:30etara Nafarroa Arenako bisita gidatuak egingo dira. Edozeinek azpiegitura bisitatzeko aukera izango du web-gunean aurretik izena emanez (<https://www.navarrarena.com/visita/>). Inprimaki horretan hainbat hitzaldi proposatu dira, euskaraz zein gazteleraz.

Bisita gidatuak NICDO-ko langileek egingo dituzte, instalazioaren enpresa-kudeatzailea, eta frontoiaren zein pista nagusiaren espazioaren, edukieraren, berritasunen ... inguruko zehaztapenak azalduko dituzte, bai eta eraikineko erabilera anitzeko aretoen eta programazioaren berri eman ere. Gainera, Nafarroa Arena askotariko erabileretara eta aukeretara irekitako espazioa den heinean, Arenaren inguruko xehetasunak ezagutzeko aukera egongo da.

Bisita horiek irekierako lehenengo ekitaldiaren bezpera izango dira: euskal pilotako Codere Masters-eko finala, Esku-pilotako Enpresen Ligak antolatutakoa, eta jada sarrera guztiak agortuta dituena. Programazioa osorik www.navarrarena.com-en argitaratuta dago eta beste ikuskizunetarako sarrerak eros daitezke web-gune horretan bertan eta Baluarteko leihatiletan.

Nafarroa Arena: zure irudimenetik harago

Nafarroa Arena Iruñean dagoen Nafarroako erabilera anitzeko pabilioia da. Balio anitzeko eraikina da eta bertan kirol-, kultura- eta jolas-ekitaldiak nahiz ekitaldi korporatiboak antola daitezke, eskualdeakoak, nazionalak zein nazioartekoak. Edukiera guztietara molda daitezke eta 11.800 pertsona har ditzake barruan. Zinema zein publizitate filmazioetarako azpiegitura ezin hobea du, eta gainera eraikin mota horietarako eraginkortasun-teknologiarik puntakoena du.

Informazio gehiago:

Diana González
d.gonzalez@nicdo.es
www.navarrarena.com
948066066